


Noqua!!

H A M A B O S T E K A R I A

1997ko urriak 17

Usurbil, 28. Zenbakia



Gipuzkoako txapelduna eta Euskal Herriko bigarrena aizkoran

JAIOTZAK

Jon Mikel Azpiazu Zubeldia
(1997-10-06)
(Kaleberri)

EZKONTZAK

M^a Pilar Torres Lara (Santuenea)
eta
Jesus Balerdi Iribarren (Lasarte)
(1997-10-04)

MEZA ORDUAK

Igande edo jai bezperatan

6.30etan Kalezarko monjetan
7.30etan Aginagako elizan
8.00etan Usurbilgo parrokian

Igande edo jai egunetan

9.30etan Zubietako elizan
10.30etan Aginagako elizan
10.30etan Urdaiagako ermitan
11.30etan Usurbilgo parrokian
12.30etan parrokian. Erdaraz

URRIAREN 13TIK EUSKO TRENBIDEAKEN AUTOBUS ORDUTEGI BERRIA

ASTEGUNETAN

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
07.40	08.05	08.25	06.45	07.05	07.30
08.00	08.25	08.35**	07.15	07.35	08.00
08.40	09.05	09.25	07.45	08.05	08.30
09.00	09.30	09.40 *	08.15	08.35	09.00
09.40	10.05	10.25	08.45	09.05	09.30
10.40	11.05	11.25	09.20**	09.30	10.00
11.40	12.05	12.25	09.45	10.05	10.30
12.00	12.25	12.35**	10.20*	10.30	11.00
12.40	13.05	13.25	10.45	11.05	11.30
13.00	13.30	13.40 *	11.45	12.05	12.30
13.40	14.05	14.25	12.45	13.05	13.30
14.00	14.30	14.40**	13.20**	13.30	13.55
14.40	15.05	15.25	13.45	14.05	14.30
15.00	15.25	15.40*	14.20*	14.30	15.00
15.40	16.05	16.25	14.45	15.05	15.30
16.40	17.05	17.25	15.20**	15.30	15.55
17.40	18.05	18.25	15.45	16.05	16.30
18.00	18.30	18.40*	16.20**	16.30	17.00
18.40	19.05	19.25	16.45	17.05	17.30
19.00	19.25	19.35**	17.45	18.05	18.30
19.40	20.05	20.25	18.45	19.05	19.30
20.00	20.30	20.40*	19.20*	19.30	20.00
21.00	21.25	21.45	19.45	20.05	20.30
22.00	22.30	22.50	21.15	21.35	22.00

*Oriaraino bakarrik

**Aiaraino joaten da

*Oriotik irtetzen da

**Aiatik irtetzen da

ASTEBURUTAN

Donostia	Usurbil	Zarautz	Donostia	Usurbil	Donostia
07.30	07.55	08.15	07.30	07.05	07.30
08.30	08.55	09.15	07.45	08.05	08.30
09.30	09.55	10.15	08.45	09.05	09.30
10.30	10.55	11.15	09.45	10.05	10.30
11.30	11.55	12.15	10.45	11.05	11.30
12.30	12.55	13.15	11.45	12.05	12.30
13.30	13.55	14.15	12.45	13.05	13.30
14.30	14.55	15.15	13.45	14.05	14.30
15.30	15.55	16.15	14.45	15.05	15.30
16.30	16.55	17.15	15.45	16.05	16.30
17.30	17.55	18.15	16.45	17.05	17.30
18.30	18.55	18.15	17.45	18.05	18.30
19.30	19.55	19.15	18.45	19.05	19.30
20.30	20.55	20.15	19.45	20.05	20.30
21.30	21.55	21.15	20.45	21.05	21.30
22.30	22.55	22.15	21.45	22.05	22.30



Urte hasieran banatu genizuen Noauaren egutegia ongi begira ezazue. Izan ere, Urriko hilabetea gaizki dago. Urriak 1 asteazkena izan zen eta gure egutegian astear-te bezala agertzen da. Hortik aurrera hilabete osoa gaizki dago. Azaroa eta Abendua, ordea, ondo daude. Barkatu beharko diguzue akats hau.

Bai, esan?

- Udala 37 19 51
- Udaltzaingoa 36 11 12
- Anbulategia 36 20 13
- Udarregi ikastola 36 12 16
- Agerialdeko ikastetxea 36 38 95
- Oiardo kiroldegia 37 24 98
- Zumarte musika eskola 37 15 94
- Etumeta euskaltegia 37 20 01
- Taxi geltokia 36 21 78
- D.Y.A. 46 46 22
- Gurutze Gorria 27 22 22
- Gure Pakea egoitza 37 32 28
- Gure Elkartea egoitza 37 17 51
- Arrate egoitza 36 63 40
- Eusko Tren informazioa 47 09 76
- Noaua! aldizkaria 36 03 21

Zer irizten?

Noaua!

Usurbilgo hamabostekaria

Argitaratzailea: Noaua!
Kultur Elkarte. Kale Nagusia,
37 - 20.170 USURBIL (Gipuzkoa)
Tlf. eta faxa (943) 36 03 21.
e-mail:
Noaua.mandio@redestb.es

Zuzendaria: Olatz Altuna.

Kazetariak: Ainhoa Azpiroz,
Idoia Torregarai, Josu
Aranberri, Garikoitz Udabe.
Kolaboratzaileak: Pedro Mari
Matxain, Nere Amenabar, Ines
Kamino, Leire Atxega, Iñaki
Labaka, Iratxe Begiristain,
Begoña Zubiria, Amagoia
Mujika, Xabier Arregi, Pako
Agudo, Alfonso Vidal, Nieves
Aranburu, Luis Aranalde eta
Zalao Arnaiz **Administrazioa:**
Arantxa Usaralde, Aitor
Pikabea eta Nerea Kamino.
Erredakzio Kontseilua: Olatz
Altuna, Garikoitz Udabe, Jose
Jabier Furundarena, Iñigo
Azpiroz, Idoia Torregarai, Josu
Aranberri, Ainhoa Azpiroz.

Maketazioa: Susana

Martin. **Argazkia:** Joxe Antonio
Labaien. **Informatika:** Pili Liza-
so. **Banakeia:** Mertxe Jimenez,
Txelo Vidal eta Iker Muguruza.
Elektrikaria: Iñaki Salsamendi
Sukaldaria: Joxe Mari Sarasola,
Tirada: 2.200 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza,
Industrialdea 1 - 2, 20.160
Lasarte-Oria.

Noaua! hamabostekariak
ez du bere gain hartzen aldiz-
karian adierazitako esanen
eta iritzien erantzunkizunik.

**PORTADA: Joxe Migel
Peñagarikano bere etxe
aurrean.**



Meningococoaren aurkako txertoa

Sebe Mintegi

Usurbilgo Osasun Zentroko pediatra

Meningitisa denok eza-
gutzen dugun gaixota-
suna da. Batzuek gehiago,
beste batzuek gutxiago, noiz-
bait denok entzun eta erabili
dugu meningitis hitza, batez
ere aurten. Dena den, oso
gutxitan ikusten dugun gaixo-
tasuna dugu hau.

Meningitisa mikroorganismo
askok sor dezakete.
Horietariko bat, Euskal Herri
osoan gehien ikusten dugu-
na, meningococoa.

Gizakiarengan problemak
oso gutxitan sortzen dituen
mikroorganismoa da
Meningococoa. Baina, ara-
zorik sortzekotan, gaixotasun
larriak izaten dira, gehien
ezagutzen dena meningitisa.
Meningococoen artean 13
talde daude (B, C, A, Y,...).
Gure artean, sarrien aurkitzen
dena B deritzona da.
Zoritxarrez, B meningococo-
aren aurkako txerto onik ez
dago.

C meningococoa mundu-
ko beste toki batzuetan aur-
kitzen zen gehien bat, Hego
Amerikan batez ere. Azken
bizpahiru urteotan C menin-
gococoa Euskal Herrian gero

eta sariago topatu dugu,
batez ere bailara batzuetan,
esate baterako Galdakao ta
Aiala aldean joandako
neguan. Gaur egun, gure
inguruan C eta B meningo-
cocoen kopuruak pareka-
tzen ari dira.

C meningococaren aurkako
txertoa badago eta Araba,
Bizkaia ta Gipuzkoako pobla-
zio talde bati ipintzea
gomendatu du Osakidetzak
(18 hilabeteetan 20 urte
bitartekoak). Txerto honek 18
hilabete baino gazteagoak
diren umeengan eraginik ez
dauka, eta honegatik ez
ditugu ume hauek txertatu,
bai ostera nagusiagoak.
Honekin, beste herrialde
batzuetan gertatu den beze-
la, C meningococoa era-
gindako meningitis kopurua
Araba, Bizkaia ta Gipuzkoan
gutxituko egingo da.

Dena den, honek ez du
esan nahi meningitisa desa-
gertuko denik. Eta gogoan
izan, meningitisaz gain beste
gaixotasun asko askoz sarria-
go jasaten ditugula. Beraz,
gaizki sentitzen bazara kon-
sulta ezazu.



Usurbilgo Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultura sailak
diruz lagundutako
aldizkaria

355
bazkide ditu Noaua!ak.
Zu ere egin zaitez
bazkide

EUSKALDUNONTZAT EZ DAGO JUSTIZIARIK

1997ko martxoan, **Euskal Herrian Euskarazeko sei kide** (horien artean usurbildar bat) Bergarako epaitegian sartu ziren **euskaldunon hizkuntza eskubideak berma daitezen** eskatzeko asmotan. Erdaraz egiten ari ziren epaiketa bat moztu zuten ekintza baketsu batez. Hau dela eta, maiatzean EHEkide hauen etxeetan "célula de citación" delakoa jaso zuten, **erdaraz** noski. "Célula" delako hori **euskaraz jasotzeko eskubidea** daukagula eta, instantzia prestatu eta bakoitza bere herriko epaitegira zuzendu zen.

Ekaina aldera ordenu publikoaren aurkako falta egin izanagatik epaituak izango zirela jakinarazten zaie. Irailaren 2an goizeko 10.30etan Bergarako epaitegian sartu ziren sei EHEkideak abokatuak lagundurik, aurrean epailea (**erdalduna**), fiskala (**erdalduna**), idazkaria (**erdalduna**), bi ertzain testigu gisa (**erdaldunak**) eta itzultzailea (**elebiduna noski**) zeudelarik.

Epaiketa fartsari hasiera ematen zaio, epaileak lehen hitza duelarik. Berehalakoa sei kideak eserlekutik

altza eta **epaiketa erdaldunik ez dugula onartuko** jakinarazten diote epaileari. "**Euskaldunontzat ez dago justiziarik**" dioten txartelak eskuetan hartu eta epailearen aurrean jarri ziren epaiketa geldiaraziz. Bitarte horretan atea zaintzen zegoen ertzaina epailearengana hurbildu eta epaileak "los seis detenidos, ¡al calabozo!". Esan eta egin.

Ordu 1' erdi luze **kalabozoan** izan ostean epailearen aurrera eramane zituzten. Berriz ez dutela epaiketa fartsarik onartuko azaltzen diote, ez direla gaizkileak eta eskatzen dena **euskararen eskubideak, gure eskubideak berma daitezen** dela. Erantzuna epailearen gustokoa ez eta berriz ere **kalabozora**, abokatuak ere uko egiten duelarik epaiketan jarraitzeko. Hala ere epaiketak aurrera segitu zuen abokaturik gabe, eta akusatuek kalabozoan zeuden bitartean, **hori bai demokrazia!**

Beste ordu 1' erdi bat igaro ostean, beste epaile baten aurrera eramane zituzten, hau ere **erdalduna**. Banan-bana deklaratzera uko egin ostean "delito grave de

desobediencia y perturbación grave del orden" leporatzen dien orri bat jaso zuten **baldintzapeko askatasunean** utziz.

Ja sententzia jaso dute, **sei aste-buruetako gartzelaratzera**.

Exenpluzko kondena izateko asmoarekin jakin behar dute ez gaituztela kokilduko, ez dago ez zigorrik eta ez isunik **euskararen eskubideak** isilaraziko dituenik. Desobediencia jarrerak aurrera jarraituko du. Euskaldunontzat justiziarik ez dagoen bitartean ozen oihukatuko dugu **epaile erdaldunak Espainiara! Epaile frantsesak Frantziara!**

Idatzi honen bitartez mezu bat luzatu nahi dizuegu usurbildar guztioi eta orohar euskaldun guztioi, gure **hizkuntz eskubideak** alde guztietan defendatuko ditugula eta jarrai dezazuela zuek ere EHEkideok ireki dugun **desobediencia bidea**. Horretarako gurekin harremanetan jarzea besterik ez duzue. Euskal Herri euskalduna lortu bitartean, jaso ezazue agur bero bat!

Usurbilgo EHE



Usurbildarrak toki guztietan egoteko abildadea omen dugu eta ez da gezurra izango. Bestela, ikusi Aretxabaletako Produktu Ekologiko eta Biologikoen azokan zein topatu genituen: Noauako sukaldaria eta herriko brigadista. Begiratu bai, baina ez dakigu zerbait erosi zuten.

SERIGRAFIA
T A N P O G R A F I A

LOSU

Ugaldea poligonoa 36 - 2^o Esk
Usurbil - Gipuzkoa

37 19 54

INDUSTRI ETA
IRA GARKI SERIGRAFIA
KAMISETEN INPRIMAKETA

WINGANGA

TABERNA

Usurbilgo txilborrean
herritarron topaleku

Irazu kalea, 9
Tlf: 36 02 17



Andatza

karr ozeria

Gumer Sánchez

Osinalde industrialdea
Errota Berri kalea
USURBIL

36 36 77



ALAZNE BEGIRISTAIN AGIRRE

Azaroan 17 urte beteko dituen urdaiagar hau Berraiartza Bitarte baserrikoa da, eta bere zaletasun haundienetako bat saxofoia jotzea da. Berak aitortu digunez, musika oso garrantzitsua baita bere bizitzan.



Noiz eta nolatan hasi zinen saxofoia jotzen?

Aurten zortzigarren urtea dut jotzen hasi nintzela. Dudatan ibili nintzen saxofoia eta flautaren artean.

Aitak eskusoinuarekin batera jotzeko saxofoia hobe zela esaten zidan. Bestetik, Zumarten saxofoia aukeratzekotan nenbilela jakin zutenean horretara bultzatu ninduten, inork ez zuelako bertan ikasten instrumentu hau. Sei urtetan bakarria izan naiz, aurten hasi da beste mutil bat ikasten.

"Taratxun" txaranga ere jotzen omen duzu.

Bai, niretzat gauzarik politena hauxe da. Ez da berdina klasean zu bakarrik jotzea edo beste batzuekin festa giroan egotea herrian, eta jendea zuri entzun edo dantzatzeko dagoela... "gozada" bat da. Txaranga gain ere talde batean jotzen dut.

Boskote bat gara eta nik saxofoia jo eta abestu egiten dut. Iaz hasi ginen eta izugarritzko urduritasunak pasatzen ditut!

Eta beste denborapasarik ba al duzu?

Koralean ere aritzen naiz. Egun guztia Zumarten pasatzen dut eta! Azken kontzertua Altzan eman genuen iazko kurtso amaieran, baina beraiek deituta! Harrituta gelditu ginen.

Hain txarrak al zarete, ala?

Ez dakit ba. Behin Erretereriako lehiaketa batean parte hartu genuen eta oso pozik geunden gure lanarekin. Denek esaten ziguten primeran abestu genuela. Baina ez ginen geratu lehenengo lauetan ere. Hori duk odol txarra jarri zitzaiguna.

Aurten UBIn zaude, esaten duten bezain beldurgarria al da?

Oraintxe hasi naiz, eta oraindik ezin dut ziur esan, baina niretzat beste edozein maila bezalakoa da. Maixuek ere beldurra sartzen dute, beste gauzarik ez daukate.

Eta kurtso hau amaituta, zer?

Oraindik ez dut erabaki, baina beharbada "Irudia eta Soinua" ikasiko dut Andoainen. Horrela musikarekin zerikusirik izango du.

Parrandazalea zela entzun dugu, zein nahiago dituzu, Sanestebanak ala Santixabelak?

Beharbada bertakoa naizelako, baina Sanestebanen aldekoa naiz. Kanpinean pasatzen ditugu festa hauek lagunok eta horrek ere badu bere xarma. Hala ere, Usurbilen ere ederki pasatzen dut, hori ez da problema.

Eta arazorik izaten al duzu etxera bueltatzeko etxea hain urruti izanda?

Etxean beti kexaka nabil horregatik, zeren jeisteko ordu erdia behar baitut, eta igotzeko beste hainbeste. Baina koadrilakoak hain ondo sakabanatuta gaudenez, festa desberdinetan lagun baten etxean geratzen gara lotan, eta ez dago arazorik. Etxera etortzen banaiz, beti amonaren kuartora joaten naiz iritsi naizela esateko. Txikitari ere, trumoiak zeudenean, amona eta aitonaren ohean sartzen nintzen, ez ama eta aitarenean.

Eta baserriko lanetan aritzen al zara?

Belarretan, patata ereiten eta biltzen aritzen naiz, baina hortik aurrera gutxi. Batzuetan baserri biziak lotu egiten du, baina hala ere ez nuke aldatuko. Hori bai, izugarritzko beldurra ematen didate behiek.

"Sanatorioaren" aldamenean bizitzeak ba al dauka eraginik?

Batzuek horrela esaten dute. Baina ez dugu izaten arazorik. Gogoratzen dut nik lau urte nituenean gazte bat nire atzetik etxeraino sartu zen hura, baina gehiago ez. Orain, berriz, "pretendienteak" eta guzti ateratzen zaizkit.

USURBIL
O P T I K A



Irazu kalea, 9-11. Usurbil
Tlf. eta Faxa: 37 02 69 (Gipuzkoa)

Udazkeneko eskaintza tentagarria!!

Eguzkitako betaurrekoak %10 eta %20eko deskontuarekin
Lentilen likidoa %17ko deskontuarekin

KALEBERRI




Ines Kamino

Frontoi atzeko toldoa konpondu dute

Ba zen garaia! Frontoi atzeko **toldoa konpondu dute**. Frontoia inauguratu zuten, bai, baina Usurbilgo pelota txapelketa hasi bezain laister atzeko toldoa bertan behera jausi zen. Eskerrak goizeko hamarrak aldean erori zen, bestela... Denok dakigu arratsalde zuraso asko inguratzen dela beren haurrekin, eta haurrak hor ibiltzen dira, toldoaren azpikaldean. Orain lasai egon daitezke, izan ere, urriaren 6tik 12rako astean jo eta ke ihardun zuten konponketa lanetan.

Bestalde, Udarregi Zahar aurreko aparkalekuan asteazken goizetan kotxea ezin dela utzi gogorarazteko **seinalea jarri dute** udaleko langileek. Asteazkenero azoka egiten da, eta horregatik, asteazken goizetan ezin da kotxea utzi.



URDAIAGA



Leire Atxega

Sagardoa edateko aurrez lan egin behar

Udazkenarekin batera **sagardoa** egiten haste-ko **garaia** iritsi da. Mama gozoa gustora edaten dugun arren, aurrez egin beharreko lana ezkutuan gelditzen da askotan. Lehen



baserri gehienetan egiten zen sagardoa, orain, berriz, gutxi batzuetan mantentzen da ohitura hori.

Urdaigan **sagasti ugari** ditugu eta iraillean hasita jende ugari ibili da sagar biltzen. Batzuk sagardogileei saltzeko, beste batzuk, aldiz, etxean sagardoa egiteko. Jakin ahal izan dudanez, ez dago sagar ugari bazterretan, baina dagoenarekin konformatu behar, zer egingo diogu bada! Hala ere **sagarraren prezioa zertxobait igo** da iazkoarekin alderatuz.

Joan den urtean 32 pezeta ordaintzen zuten sagardogileek kilo bakoitzeko. Aurten sagardogile eta sagar produktoreak akordio batera iritxi eta 32,5 pezetakoa izan da sagar kiloaren prezioa.

Hala ere, sagar biltzeak amaitu ziren. Orain sagar jotzen hasiak dira auzoko sagardogileak. **Berraiartzako barrenan** ja amaituko zuten agian.

ATXEGALDE



Amagoia Mujika

Auzoan jairik gabe jarraitzen dugu

Ia ohartu ere egin gabe urriaren erdian kokatu gara. Piskanaka-piskanaka urtea aurrera doa, eta festa eta algarak amaitu dira, oraingoz behintzat. San Praiskuak amaituta, **gure auzoko festak faltan** botatzen ditugu. Ondo pentsatzen jarrita, Kalejiran agertzen diren auzoetatik, Atxegalden bakarrik ez da jairik egiten. Agian, hemendik urte batzuetara animatuko gara. Gainera, laister, 2000. urtea datorrenez... txip-a aldatu eta auzoko jaiak antolatzen hasi beharko dugu.

N•I

Ileapaindegia

MISTOA

Solarium, depilazioa, makilajea eta manikura

Aritzeta 2 - 2 1.A
Telefona: 36 19 51



TXIRIBOGA
TABERNA

pintxoak, bokatak
eta plater konbinatuak

Irazu kalea, 3 - Tlf. 37 00 13

Barnekoak
ogorak

36 13 18

TXOKOALDE

Iñaki
LabakaGure frontoi zahar
hura...

Honela hitzegin dezakegu orain. Horrenbeste denbora **frontoia berritzeko** eskatzen eman ondoren azkenean hasi dituzte **lanak**. Sinesteak ere lan ematen du. Joan den urriaren 2an hasi ziren frontoi zaharrari estalkia kentzen. Hasi direnean ondo,



piskanaka-piskanaka laister egingo dituzte egin beharrekoak. Martxa honetan lanen auzoa izendatuko dute gurea. Alde batetik erreka berbideratzeko lanak, bestetik frontoia berritzeko lanak. Nazkatzen ere hasiak gara,

horrenbeste kamioi, trastu haundi eta hauek harrotzen duten hautsarekin. Guztia amaitzean pake ederra hartu behar dugu, bai horixe. Auzo berri bat bilakatzen ari zaigu Txokoalde.

AGINAGA

Iratxe
BegiristainFestak amaitu eta
normaltasunera itzuli

San Praxkuak ere, etorri ziren bide beretik joan dira. Aginagarrok urriaren hasieran izaten dugun zita nagusia atzean gelditu da, eta orain, balorazioak egin eta datorren urterako prestatzen hastea izango dugu onena. Aurtengo jaiez zer esan? Lehenengo astean **eguraldi bikaina** izan genuen, inoiz baino giro epelagoa eta gau giro ederra. San Praisku egunean egin zuen eguraldiaz ezin kexa gintezke. Bigarrean, ordea, euriak bere agerpena egin zuen. Beldurtzekoa zen ostiralean eguraldiak zuen kolorea, baina urte sasoi honetan zer espero dugu ba?

Bestalde, urriak 4 eta 5ean aginagar **jubilatuak** egindako **eskulan** eta **pinturak** ikusgai izan genituen Arrate zahar egoitzan. Auzoko jubilatuak trebetasun haundiz egindako lanak ziren hauek eta tartean zen Euskadi mailan 4. saria lortu zuen **Joxe Azurmendiren** egurrezko lana ere.



ZUBIETA

Xabier
ArregiZubietako bira: kirolari
eta ibiltzaileen gotorleku


Egunen batean, Zubietako bira zenbat jende egiten duen zenbatzen hasi beharko dugu. Izan ere, eguraldi ona denean, goiz eta arratsalde, gizonezko eta emakumezko, gazte nahiz zahar, jende ugari ibiltzen da Zubietako bideetan.

Azken bi hilabetetan egin duen eguraldi onak lagunduta, Behobia-Donostia lasterketa prestatzen dihardutenak ere Zubietarantz abiatzen dira, bai Usurbil baita Lasartetik ere. Arratsaldeko 7.00etatik aurrera korrikalari ugari ikusiko dituzu gure bideetan.

Beraz, kontuz ibil gaitezen. Bide estu hauetan ezbeharririk ez dugu behar eta.

PINTXO BEREZIAK

Aritzeta, 2 Tel.: 37 10 42



Igendetan ganba-ziri mundialak!

Eros ezazu
herriko
dendetan

H erorrek esan



Maria Pilar Zinkunegi

Kaleberri

Bai, Udarregi Zaharrean daude.

Eguneroko gauzetarako nahikoa dela uste dut, baina ez ditugu batere zaintzen. Konpontzen dituztenean segituan puskatzen dituzte eta. Bestela, beharrezkoak dira.



Joakin Eizagirre

Kaleberri

Ez dago. Lehen bai, elizaren atzean

zeuden. Ez zeuden oso txukunak, baina bazeuden behintzat. Nik behintzat oso beharrezkotzat jotzen ditut.



Ana Delgado

Eguzkitza

Bai, badaude frontoian. Baina

hala ere, uste dut gehiago ere egon beharko luketela. Hori bai, zainduz. Izan ere, frontoikoak oso egoera txarrean egoten dira.



Manoli Amutxategi

Kaleberri

Ez daude, tabernetatik kanpo.

Eta komeni lirateke, gutxienez kaxkoan. Auzoetan, berriz, batez ere jende asko bizi den tokietan jarriko nituzke, Atxegalden adibidez.



Elena Diaz

Zubieta

Ez daude. Baina egon

beharko lukete. Inoiz ez dut izan horrelako "larraldirik, baina nire lagun askok bai. Jartzekotan kaxkoan jarriko nituzke, frontoi inguruan.



Juan Mari Martin

Santuenea

Ez dago bate-re. Gainera, iruditzen zait

oso beharrezkoak direla gainera, askotan arazoak sortzen dizkizulako. Hasi ezgero, auzo bakoitzean jarriko nituzke, bata bestetik oso urrun daude eta.



Esperanza Holgado

Getaria

Ez daude. Baina beharrezkoak direla

uste dut. Frontoi eta plaza inguruan bai behintzat, inguru horretan jende asko eta ordu askoz ibiltzen baita. Horrela ez duzu tabernetara sartu beharrik.



Jose Luis Usandizaga

Kaleberri

Ez dago bate-re. Lehen bai, elizaren atzean

zeuden. Behar beharrezkoak ikusten ditut gainera, behin baino gehiagotan "apuro" batean egon bainaiz.

ORBELDI

MARKEL OLAIZOLA
ASEGURU AGENTEA / Zbk. 200009



GENERALI
Aseguru Konpainia

Mota guztietako Aseguroak zure zerbitzurako

Arizeta, 1 Tlf: (943) 37 18 07
20170 Usurbil (Gipuzkoa)



ZUMET A JATETXEA

Txoko alde, Tel.: 36 27 13

ZUMET A MENUAK

(Gutxienez 2 lagunentzat)

- Itsaskientsaladahozber oatrufa zaporez
- Zapoatxangurr ozbeteriketaittsaski saltsaz
- Aspizunapatataपुर e, onddo eta pikilopiperraz haragi saltsatan
- Etxekoazkenburukoendegustazioa
- Ardo bereziaetakafea

3.200 pta.



ARRAINDEGIA PELLO



Arizeta Kalea, 1
Tlf 36 21 64
USURBIL



Udalgintza lanak geldituta

Pasa den urriaren 6an hasi behar zuen Herri Batasuneko Mahai Nazionalaren aurkako epaiketa ja bi aldiz atzeratua izan da. Hori dela eta, Urriaren 6tik 12ra, gure herriko udalgintza lanak geldirik egon dira.

Alternatiba Demokratikoa zabalteagatik, Herri Batasunako Mahai Nazionala osatzen duten 23 kideen aurkako epaiketa salatu asmoz, Udalgintzarako zenbait ekimen bertan behera uztea erabaki zuen Usurbilgo Herri Batasunak. Hala nola, batzorde guztiak, gobernu batzordea eta plenoak. Hala ere, beste zerbitzuak bere horretan dira.

Urriaren 12an, ostiralean, argazkian duzuen **konzentrazio ixila** burutu zen udaletxe aurrean. Bertan, 40 pertsona inguru bildu ziren.

Epaiketa aste honetara atzeratu izanak ere eraginik izan du Udal jardueran; izan ere, aste honetan ere, aurretik aipatutako geldialdiarekin aurrera jarraitu baitute. Honela, urriaren 12tik aurrera aurrez aipatutako udalgintza ekimenak geldirik daude.

Joxe Antonio Altuna alkatearen esanetan, epaiketak aurrera jarraitzen badu, ez dakite zein neurri hartuko dituzten hurrengo astetarako.

EUSKAL TXOKOETAKO BEGIRALE BERRIA AUKERATU DUTE

Euskal Txokoetako begiralea kontratatzeko emaitzak atera dira jada. Eta epaimahaiak, aurkeztu diren zazpi eskaeretatik **Garbiñe Zaldua** zubietarrari postua ematea erabaki du.

Postua nori eman erabakitzeke, hainbat froga egin behar izan dituzte zazpi gazteek. Euskararen gaitasuna, eta Euskal Txokoetarako proiektua prestatu eta azaldu egin behar izan dute. Hau kontutan hartuta, **Garbiñe Zaldua** eta **Maidor Errastik** puntuazio berdina lortu zuten, eta epaimahaiak elkarriketa bana egitea erabaki zuen. Azkenean, postua Garbiñerentzat izan da.

USURBILGO UDALAK INTSUMISIOA BULTZATZEN JARRAITUKO DU

Luis Navajas Donostiako fiskal nagusiak irailean Eudimaren (Euskal Herriko udal intsumituen mankomunitatea) aurkako ke-reila ezarri ondoren, Eudimaren sorrera testua idatzi zuten 16 alkate (Usurbilgo alkatea barne) Tolosako haizitegira deitu dituzte.deklaratzera. Fiskalaren esanetan Eudimak delituzko ekintzak bultzatzen ditu eta hori ez da zilegi.

Eudimako kideek urriaren 13an egin zuten prentsaurrekokoan **Joxe Antonio Altuna** Eudimako lehendakariak, beraiak, orain arte bezala intsumisioa bultzatzen jarraituko dutela adierazi zuen.



Urtinea Elkarteak

Loreak - Lore landareak

Lore sortak - Koroak

San Esteban
Tlf.: 36 22 55



Joxe Miguel Peñagarikano: "Beste bi urtetan jarraituko dut aizkoran"

Beizaman jaio zen orain dela 40 urte. Mari Karmen Lizaso usurbildarrarekin ezkondu eta urtebetera ekin zion egur mozteari. Gaur egun, Euskal Herriko aizkolari onenetakoa da Joxe Miguel Peñagarikano. Aurten-go Gipuzkoako txapelkunak, bigarren postua eskuratu berri du horrenbesteko oihartzuna izan duen Euskadiko aizkolari txapelketan. Azken hiru urtetan, Arroitxulon bizi da, bere emaztea eta Mikel, Maria eta Xabier seme-alabekin.

Noiz eta nola sartu zen Joxe Miguel Peñagarikano aizkolaritzaren munduan?

Aizkoran berandu hasi nintzen, 26 urterekin. Gure familia eta aizkolaritzaren arteko lotura lehenagotik dator. Aitona aizkolaria izan zen, eta anaia ere hasi zen aizkoran, baina etxean, apustu kontua gustokoa ez zutenez, ez zioten uzten aizkoran egiten. Niri, ezkontzearekin batera sartu zitzaizkidan aizkoran aritzeko arra, ordurarte behin bakarrik ibili bainintzen aizkoran. Beizamako festetan izan zen, soldaduskara joan aurretik. Hala ere, nire kirolarekiko zaletasuna ez da oraingoa, beti gustatu izan zait kirola egitea.

Aizkoran ibili aurretik beste kirolik egiten al zenuen orduan?

Urte betez arraunean aritu nintzen. Aginagako trainerilan eman nuen urtea, baina ondoren, bakarkako kirola gehiago atsegin nuenez, aizkolaritzaren munduan sartzea erabaki nuen. Agite eta Mendizabal aizkolaria izan ziren nire lehen eta azken erakustaileak. Izan ere, behin kortea ematen ikai eta gero nire kabuz jarraitu

nuen enborrak mozten.

Hasiera hura ez zen erraza izango.

Ez horixe! Enbor baten gainean jarri eta aizkoran aritzea ez da batere erraza. Aizkolaritza kirol zaila da, egurra ondo mozteko teknika handia behar da, eta teknika hori esku-ratzeko denbora behar-beharrezkoa da. Askotan golpe hutsak ez du ezertarako balio, eginahalak egin, eta ebaki ez, hori gertatzen zaio ez dakienari.

Zu, azken urteetan oso maila altuan zabilza. Asko entrenatu behar al da horretarako?

Entrenamenduak txapelketen arabera egiten ditut. Txapelketik ez dagoenean pesak egitea eta mendian ibiltzea izaten da nire entrenamendua, egurra oso gutxi mozten dut. Txapelketa baino hilabete pare bat lehenago

Ezkondu eta urtebetera hasi nintzen aizkoran, 26 urte ingururekin

prestakuntza erabat aldatzen da : astean hiru egunetan aizkoran aritzen naiz jo eta ke, gimnasioan ematen ditut lau egun eta erreku-pertzeko mendira joaten naiz hiru egunetan. Azkenean gogorra egi-



ten da. Neguan, nik nahi dudana moduan eramaten dut entrenamendua; udaran, ordea, ezinezkoa da. Erakustaldi ugari egiten ditugu herri ezberdinetan; egun batean bi erakustaldi ere egin izan ditut, eta horrek entrenamendua erritmoa hausten du.

Aizkoraetik bakarrik bizi al daiteke?

Hori oso zaila da. Urte ona denean aizkoran aritzetik diru piska bat ateratzen da, baina bizitza osorako ezta pentsatu ere!. Txapelkunek bi milioi inguru irabazten dituzte udaran egiten diren erakustaldien bidez. Baina, udarak hiru hilabete ditu, eta beste bederatzita hilabetetan ezin da lanik egin gabe bizi. Ez ahaztu, bestalde, aizkolaria gogoratuak haundiak direla: egurra, prestakuntza... azkenean aurrekontuak gora egiten du eta horri aurre egiteko laguntzarik ez dugu jasotzen. Hala ere, ni aizkoran gustatzen zaidalako ibiltzen naiz, hobby bat da.

Hainbesteko sufrimenduak merezi al du?

Nik jende asko ikusten dut maratokia prestatzen; gu baino denbora gehiagoz aritzen dira, eta azkenean ez dute saririk izaten. Guk, behintzat, gastuak tapatzeko eta zerbait gehiago ere ateratzen dugu. Gustora ibiliz gero pena merezi du, bestela ez nintzateke aizkoran jardungo.

Beste kirol gehienetan 35 urterekin erretiratu egiten dira. Aizkolariak, berriz, 35-40 urterekin iristen dira gailurrera. Nola esplikatu zenuke hori?

Teknika aldetik, aizkoran egitea oso zaila da. Enbor moztan hamar urte baino gehiago daramazkiten gazteak badaude, baina normalean 30 urte baino gehiago dituztenak dabilta goiko puntan. Gazteek ez dute zailtasunik. Egur bat edo bi moztan dituzte, baina iraupen luzeko lanean gorputzak ez die erantzuten futbolearen edo beste kirolen bezala. Urteetako esperientzia garrantzitsua da oso.

Zu, ordea, ia 40 urterekin irixi zara gailurrera.

Nire kasua ezberdina da. Ni, beste aizkolariak baino beranduago hasi nintzen. Urtez-urte, nire maila gaitzetzeko ilusioa izan dut, eta azken bi-hiru urteetan asko hobetu ditut nire denborak. Gailurrera iritsi eta gero beste urte pare batean behintzat jarraitu beharko dut. Lesiorik ez bada, beste bi urtez jarraitzea nahikoa da, adinean aurrera egin ahala errekupeatzeko zailtasun haundiagoak ditut, eta hori, nabaritu egiten da.

Aurtengoa izan al da zure urterik onena?

Nahiz eta aurten txapelketetan sailkapen hobekia egin, nire urterik onena, maila aldetik, iazkoa izan zen, nire buruarekin oso gustora gelditu nintzen. Euskal Herriko txapelketan laugarren postua eskuratu nuen, hirugarren postutik segundu bakar batera. Iaz, denborak asko jeitsi nituen: 40 minutuko lanean hiruzpalau minututan hobetu nuen nire marka.

Zer dela eta aldaketa hori?

Lehen, korrika gehiegi ibiltzen nintzen. Orain, ordea, gimnasioan ordu gehiago aritzeaz gain, mendira joaten naiz, korrika egitea alde batera utzita. Denbora kontua da dena. Korrika egiteko 45 minutu nahikoadira; mendira joateko, berriz, ordu t' erdi behar da gutxienez. Prestakuntzari zenbat eta denbora gehiago eman orduan eta emaitzak hobekia izaten dira.

Hala ere, aurten, Gipuzkoako aizkolari txapelketa irabazi duzu eta Gexon jokatu-tako Euskadiko txapelketan bigarren postua lortu zenuen. Gustora egoteko modukoa ezta?

Bai, gustora nago egindako lanarekin. Gipuzkoako txapelketan izateak baino poz haundiagoa eman zidan Euskadikoan bigarren izateak. Gipuzkoakoan ez zeuden ez Arrospide, ez eta Olasagasti ere. Horregatik, jendeak Euskadiko txapelketan jartzen ditu begiak. Etxeko guztiei eta nire laguntzaileari eskainitakoak izan dira bi garaipen hauek. Laguntzaile gutxi daukat, eta ez dago zeini eskaini haundirik.

Ez omen zara apustu zalea.

Aizkora apusturik ez dut inoiz egin, hori egia da. Apustua egitean diru asko jokatzen da: alde batetik apustua egiten duten bi aizkolariak, eta bestetik apustura doan jendeak. Hori ez zait gustatzen. Apustuak ez dira niretzat eginak.

Txapelketak, barruan ala aire librean?

Kanpoan hobeto egiten da aizkoran. Barruan jende asko, kea, hezetasuna... guzti horrek Euskadiko txapelketan gertatutakoa ekar lezake. Hala ere, leiho edo ateak zabalduz gero, ez da arazorik izaten.

Josu Aranberri



Irudian duzue Joxe Miguel Peñagarikano. Orain dela 3 urte etorri zen Usurbila bizitzera. Egun 3 seme-alaba ditu, Mikel, Maria eta Xabier. Hala ere ez nahastu. Irudiko haurretatik bere ezkerrekoa soilik-baitu alaba.

Piperrak kalitatezko labela eskuratu du

Joan den urriaren 6an aurkeztu zuten lbarran piperraren euskal labela. Kalitatezko label hau ezaugarri berezi batzuek betetzen dituzten produktu tradizionalei ematen zaie. Orain arte sei ziren euskal labela zuten produktuak eta egun zortzi, "Euskal Herriko tomatea" eta "lbarrako piperrak" gehitu baitzaizkie. Piperra "lbarrako piperra" izenarekin ezagutzera emanenez produktu honen labela izen horrekin atera da. Hala ere, Usurbilen ekoizten den **Agiña piperrek ere euskal labela** izango dute. Produktua bertakoa izatea, neurria, eta piperraren araudiak eskatzen dituen kalitatezko baldintzak betetzea beharrezkoa da piperraren euskal labela eskuratzeko.



Arg.: Ekaitz

Postaetxeko furgoneta erre dute



Pasa den asteartean, hilak 14, goizeko 10ak aldean, **Correoseko furgoneta bat erre** zuten ezezagun batzuk. Bertan zeuden hainbat pertsonen esanetan, aurpegia estalirik zuten bi ezezagun furgonetara inguratu eta koktel bat bota omen zuten eta berehala indartu omen ziren sugarrak.

Suhiltzaileak ordu laurden beranduago iritsi ziren, eta ordurako udaletxeko zenbait langilek mangerak prestatuta zituzten. Ordu erdia baino gehixeago pasa zuten suhiltzaileek sua itzaltzen. Ertzaintzak ingurua hustu zuen, gasolina deposituak eztanda egiteko arriskua baitzegoen. Informazio hau idazterakoan ez dugu jaso ekintzaren errebindikaziorik.

Mobilizazioak Usurbilgo Michelin lantegian

Usurbilgo Michelin lantegia albiste da berriz ere. Joan den urriaren 8an, bertako langileek enpresa komiteak aurkeztutako mobilizazio plana onartu zuten. Izan ere, komitearen esanetan, enpresaren zuzendaritzak ez du **konbenioa** negoziatu nahi. Langileek uztailean egin zuten erreferendumean, langileen gehiengoak, enpresaren proposamena ez onartzea erabaki zuen, eta ondorioz, negoziazioa geldirik dago. Honen aurrean, informazio orriak, pankartak etab. banatuko dituzte. Gauzak aldatzen ez badira, urriaren 20tik aurrera komiteak, lantegiaren sarreran akanpada bati ekingo dio.



PATRI

JATETXEA

Eguneko bazkariak
eta afariak

Nagusia,6
Tlf 36 27 25

20170 Usurbil
(Gipuzkoa)

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4
Tlf 37 08 78

20170
USURBIL

xabier
aritzegia

- Pintxo aukera bikaina
- Gosari bereziak

Aritzeta, 2 ☎ 36 19 78

BERTSO ETA MUSIKA ZUMETAREKIN BATERA

Joxe Luis Zumeta, usurbildar pintorearen lana bertsolaritzarekin lotua ikusi dezakegu, izan ere, hasi berria den Euskal Herriko Bertso Txapelketako kartela berea da.

Bestetik, Donostiako belodromoan urriaren 26an Che Guevararen alde antolatu den kontzertuaren dekorazioa ere **Zumetaren** esku geratu da. Kontzertu honetan, Hertzainak taldeak orduerdiko saioa eskainiko du besteak beste.



Pasa den urriaren 11an **Gure Pakea Zahar Pegoitzak** Aragoara antolatu zuen irteera. 130 bat usurbildar joan ziren bertara, eta gosari legea hotel batean egin ondoren, **Tarazona** herria bisitatu zuten. Herri honetan, XV, XVI, XVII eta XVIII. mendeko hainbat eraikuntza eder ikusteko aukera izan zuten. Bazkari legea egin aurretik, bodega batzuk bisitatu zituzten, eta nahiz eta mahatsa biltzeko garaia bukatu den, batzuek izan zuten biltzeko aukera. Etxerako bidean bat baino gehiago mareatuko zen!

SAGARDO EGUNAREN LAGUNAK INTERNETEN

Usurbilgo sagardo egunari buruzko informazioa munduko txoko guztietara zabalduko da oraingo honetan. Sagardoaren lagunak elkarteak internet sarean ezarri du sagardo eguna, sagardoaren inguruko erakusketa eta aurten argitaratu diren bi liburuei buruzko informazioa. Oraindik, gehiago landu nahi dute Interneten agertzen den informazioa, baina oraingoz "www.geocities.com" - en aurkitu daiteke.



Arg.: Ekaitz

Ja amaitu badira ere, ederki pasatakoak dira aurtengo **San Praxikuak**. Umore eta giroa behintzat ez da falta izan, nahiz eta bigarren asteburuan eguraldiak gehiegi ez lagundu. Dantzaldiak, omenaldiak, sagardo probaketa... denetik izan da Aginagako jaietan, eta noski, kirolek ere izan dute bere tarte. Argazkiko hauek dira urriaren 5ean jokatu zen soka tira txapelketako irabazleak. "**Goitarrak**" nagusitu ziren, usurbilgo zortzikotea, Jai Batzordea, K.K. elkarteak eta Pakitos boys-en aurrean.



Arg.: Ekaitz

Urriaren 3an eman zitzaion amaiera Usurbilgo pelota txapelketari. Hiru hilabete luzez jardun ondoren jubenil eta afizionatu mailako finalak jokatu ziren Usurbilgo pelotalekuan. Jubenil mailan **Etxaniz** eta **Elola** 22-5 nagusitu ziren **Laskurain** eta **Bengoetxearen** aurrean. Afizionatu mailan, berriz, **Bizente** eta **Gastesi** donostiarrek jantzi zuten txapela, **Garate** eta **Txikito IX** azkoitiarrei 22-12 irabazi ondoren. Etxaniz eta Gastesi izendatu zituzten txapelketako jokalaririk onenak

SALDA

KIROLAK - OPAELAK
 URROGALDE ETX. BEIZAKOIAK
 ATYEGA-ALDE 10. Tlf: 36-85-42

SALTXIPI

Txokoalde, z/g Usurbil
Tlf. 36 11 27 - 37 10 94

Telesforo Ardoak

Zure mahairako egokienak
Kale Nagusia, 25
Telf. 36 12 20

KIROL KOPLA



**Ibon
Beristain**

Irten gara aurten ere, ez dugu lotsarik izan. Iazko esperientziak ez gaitu kokildu. Lehen urteko tragu txarra pasa ondoren indarberriturik dator Usurbil Dream Team. Iazko lortutako hiru garaipenak gainditu behar ditugula argi dugu, baina pausoz-pauso, partiduz-partidu, gure abilitadeak areagotuz aurrera egingo dugu. Ziur nago. Haurrek, ibiltzen ikasterakoan behin eta berriz jotzen dute lurra, behin zutik jarri ondoren ordea, ez da askotan eroriko. Guk ere bide hori jarraitu nahi dugu.

Bai, Usurbil Saskibaloi Taldeaz hitzegiten ari naiz, guk ere ekin baitiogu denboraldiari, ez nahi bezain ongi, baina tira. Garaipenak etorriko dira, lasai egon. Tirtir Norris bezalako entrenadorearen lanak eta Michael Haramburu gaztearen fitxaketak, besteak beste, beren fruitua eman behar dute. Eta nola ez, taldeko beste kideak ere ez ditut ahazten, talde bat osatzen baitugu denon artean. Ez ahaztu, Usurbilgo kiroldegian duzu zita. Bi astean behin, igande goizean, Oiardo kiroldegian jokatzeko ditugu gure partiduak.


Gogorragoa izan bazen...

Ibilbidea gogorragoa izan bazen Haimar Zubeldia txapelkun. Ez dago zalan-tzarik. Munduko txirindularitza txapelketan partehartzea ez da nolana hiko marka, baina Haimarrek Donostian egindako erakustaldia bikaina izan zen.

Mundu osoko 23 urtez azpiko txirindulariekin lehiatzen laisterketa paregabea burutu zuen Urdaigakoak. Lehen itzulietan ez zen agertu baina azkenaldera aurrean ibili zen. Italiar txirindulari batekin ihes egin ondoren, momentu batez, munduko txapelketako buru izatea lortu zuen baina ahalegin hori alferrikakoa izan zen, talde nagusiak harrapatu egin baitzuen. Ondoren, Oriamendiko azken igoeran ere indartsu ibili zen Haimar

Zubeldia. Laisterketa amaitzeko zazpi kilometro falta zirenean boskarren postuan zihoan txirindulari onenekin batera. Azkenean 46. postuarekin konformatu behar izan zuen. Talde nagusiarekin batera sartu zen, irabazleak egin zuen denbora bera eginez. Haimarren esanetan, munduko txirindulari onenak zeuden hemen eta denak dira onak. *"Oriamendin aurrera joaten saiatu naiz, baina hain txirindulari onei tartea ateratzea ia ezinezkoa da"*

20 urte besterik ez dituen arren afizionatu mailako bere azken laisterketa izan zen joan den urriaren 11koa, datorren urtean profesional mailan arituko baita Euskadi taldearekin. Ea ba zortea duen.



Pintxo etabokata
goxo-goxoak

Eguzkitza

MAHUKA



GAZTE DENDA
Modako arrop
neguaren atari

Etxebeste kalea, 3 - Tlf. 36 11 06

BARATZA
FRUTADENDA

Aukera zabala
zure eskura

Eguzkitza, 4 USURBIL
Tlf. 36 49 81

Egurra eta pinturaren aterpea

Aste honetan bertan ireki dituzte ateak "Aterpea" lokalak; Susana Martin eta Joxe Luis Elexpe, "Pelex"ek Etxe Aldian ireki duten eskulangintza tailerrak. Bertan, pintura, zur tailagintza eta zaharberritzearen sekretuak ikasi ahal izango dira.

Bi artista hauen esanetan, tailer hau irekitzearen ideia maiatza aldean sortu zen, elkarrekin erakusketa bat egin ondoren, hain zuzen ere. Pelex-en esanetan, "nire lan bat margotu egin nahi nuen eta Susana horretan aritzen zela ikusita, berarekin harremanetan jarri nintzen. Beranduago, biok egindako eskultura bat aurkeztu genuen lehiaketa batean. Eskultura horrek "Aterpea" izena du, eta biok egin genuenez, tailer honi ere izen hori jartzea erabaki dugu".

Esperientzia haundiko irakasleak

Susanak Arte Ederretako ikasketak amaitu ditu eta Diseinu Grafikoan espezializatua da. Pelex, berriz, ofizialki ebanista da, baina badaramatza hiru urte baino gehiago zur tailagintzan bakarrik lanean. Bien artean, klaseak emateaz gain, beste proiektu batzuk ere badituzte: "Une honetan "Aterpea" da gure izerdi guztien bilgune. Alde batetik klaseak emango ditugu, eta enkarguz ere jasotzen ditugu zaharberritzeko lanak.

Hauetaz gain, ordea, biok batera ere lan egingo dugu eskultura, zurgintza eta pintura lanean. Oso garrantzitsua da biontzat elkarrekin lan egitea, biok ere gauza berriein esperimentatzeko nahia baitauekugu. Gure ilusioa gustatzen zaigun lan honetatik bizitzea da, eta horretarako klaseak eta beste hainbat gauza egiten ditugu. Gainera, orain arte Usurbilen ez zegoen horrelako aukera ematen zuen tailerrik, eta hori ere oso positiboa da".

Lau ordu emango dituzte astean ikastaro bakoitzean, eta izena emateak 8.000 pezeta balio du, gehi materiala, "azken finean, hemen egingo dituzten lanak beraiantzat izango dira".

Orain arte 22 pertsonak eman dute izena tailerrean,

eta bi irakasleak oso gustora daude: "Oso kopuru polita da hasiera baterako. Ikasle gehienak nahiko gazteak dira, 25 urte inguru dituzte. Baina 40 urtera inguratzen ari direnak eta 10 urteko gaztetxoak ere badaude. Kurioso da, ordea, zaharberritzean izena eman duten gehienak emakumezkoak dira, eta zur tailagintzan, berriz, gizonetzkoak".

Neska edo mutila izan, Susana eta Pelexek argi dute edozeinek parte har dezakeela ikastaro hauetan. Pelexen esanetan, "ez duzu artista bat izan behar hona etortzeko, kontua ordu asko sartzea da. Azkenean, ziur izan eskulanak ondo aterako direla. Horregatik animatzen zaituztegu gurekin eskulangintzak ikastera".

Idoia Torregarai



Susana eta Pelex, "Aterpea" izeneko eskulturaren ondoan.

PINTURAK
FERNANDO

Bizkarre, 6 Usurbil
Tlf. 36 60 19 / 36 34 60

Margoak eta paperak

Sintasola, moketa, kortxoak eta tarima jartzen dira

TABERNA-JATETXEA



ANTAXETA

EGUZKITZA, 4
20.170 USURBIL

TEL: 37 03 44

Landareak bizirik daude Aranburu lorategian



San Praixkutan Aginaga saldean ibili gara, baina plaza aldetik asko mugitu gabe, seguraski. Oraingoan, ordea, hilerritik gora doan bidea hartu dugu eta Aranburu lorategiraino hurbildu gara. Duela 3 urte irekitako lorategi hau ezagutzeko asmoz barruraino sartu gara.

Imanol Aranburu eta Aingeru Altunarekin egin dugu topo bertan. Egunero hor egoten dira landare artean, eta baita igandeetan ere. Lantegi lotua da landarezainena, baina gustokoa ere bai bikote honentzat.

Imanoli betidanik gustatu izan zaizkio landareak, eta mangera eta ongarrria hartuta, arreta haundiz zaintzen ditu. "Gizakiok bezalakoak dira eta ondo zaindu behar dira" **Imanolek** dioenez. Berari dagokio lan praktikoteknikoa, landareak nola hazten diren ikusiz gozatzen du, eta **Aingeru**, berriz, gainontzekoaz arduratzen da: lore sortak egitea, diseinua, estetika... Bakoitza bere gogoko arlora dedikatzen da eta bien artean lorategiko zerbitzu osoa eskaintzen dute.



Etxe barruko landaretan aukera zabala topa daiteke.

Garaian garai-ko kanpoko landareak aukeran

Urte osoan zehar landare mota desberdinak topa daitezke.

Orain neguan cyclamenak, primulak, evonimus eta abar. Udaberri aldean, berriz, geranioak, alegriak, petuniak eta abar landatzen dituzte. Zuhaitz apaingarriak, zuhaiskak, fruta-arbolak eta lorategirako landareak ere bertan landatu eta hazten dituzte. Denentzako lekua dago 1.000m²ko negutegi honetan.

Azkenaldian etxebizitza adosatu ugari ari dira egiten eta bakoitzak bere lorategia izan ohi du. Hori dela eta, jendea mugitzen hasi da eta aurten lorategi asko prestatu dituzte: diseinatu eta landatu.

Aipatzekoak dira, era berean, landare bereziak. **Aingeruk** dioen bezala, "jendeak aukera berriak nahi izaten ditu, beti gauza berriak eskatzen ditu eta horri erantzuteko kanpora jotzen dugu landare desberdinen bila".

Azaroan hasi eta maiatza bitartean 15 egunetik behin irte ten dira kanpora. "Bartzelona, Tarragona, Valentzia, Asturias, Galizia, Lerida eta Italiara joaten gara. Landareak, zuzenean geuk aukeratzea gustatzen zaigu" dio **Imanolek**. "Zeren, oso zaila da zuri gustatzen ez zaizuna saltzea" **Aingeruren** iritziz.

Etxe barruko apainketa

Etxearen kanpoko aldea txukundu ondoren, barrualdea ere apaindu gabe ez dugu utziko, eta are gutxiago barruko landare lehor eta artifizialekin aurkitu dugun aniztasuna ikusi eta gero. "Jendeari

gero eta gehiago gustatzen zaio barruko landareak jartzea" dio **Aingeruk** "eta ez etxeetan bakarrik, bulego, portale eta pabiloietan ere gero eta gehiago jartzen ditugu. Hori dela eta, aukera haundia daukagu". Hala ere, leku guztietan ez dira baldintza egokiak aurkitzen eta gaur egun apainketak, bai baserri girokoak bai modernoak, beste eskari batzuk dituzte. Horregatik, gero eta ugariagoak dira landare artifizial eta lehorrak. Hauen kalitatea oso egokia da eta aukera zabala dago. Gainera, **Aingeruk** leku bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartzen ditu eta horren arabera forma, neurri eta



Landare lehor eta artifizialak modu askotara jar daitezke.

koloreekin osatzen du bere lana.

Horrelako lanak urte osoan egiten dituzte. Baita ezkontzeta-rako lore-sortak, elizako apainketa, koroak eta abar.

Orain, Santu Guztien eguna laister dela eta, lorategia betetzen ari dira. "Hogei modelu desberdineko erakusgaia jarri ohi dugu, jendeak nahi duen modelua aukera dezan", azaldu digu **Aingeruk**, "baina horretaz gain, norbaitek aparteko gauza bat nahi badu ere egiten dugu. Jendeak gero eta gehiago eza-gutzen du gure lana eta gureganako konfidantza haundituz doa".

Lehiaketa

Kale nagusian barrena markesaneko petriletik gauza asko ikusi eta kontu dexente jakiten dira. Guk, gehiegi urrundu gabe, zera jakin nahi dugu:

Zein zuhaitz mota da Markesanean dagoen haundi hori?

Erantzuna bidali eta asmatzen baldin baduzue **Sekaña** jatetxeko bi pertsonentzako afariaren zozketan parte hartuko duzue. Animatu eta zorte on!




Patri jatetxeko terrazan oraindik ere ez du egongirorik makala egiten. Eta afaltzeko are eta gutxiago. **Noaua!**ren kontura **Jose Gurutz Bengoetxeak** probatzeko aukera izango du. On egin!

Erantzun asko jaso ditugu oraingoan ere eta argazkiko estolda non dagoen asmatu duzue gehienok. Bai, Kaleberriko parkean dago. Zenbat aldiz ibili ote zara baloiarekin!

Erantzun zuzenen artean bati egokitu behar **Bordatzoko** afaria, eta oraingoan **Joxe Aburuzari**.

Parketik gertu beste lagun baten konpainian afaria egiteko moduan zara. Zorionak!

Komikia



Ekaitz

Bideo eta Argazki

Usurbil

tlf 36 14 87

oiartzun



Aginaga
☎ 36 27 73

BEREZITASUNAK
SEKAÑA Txerrikumea,
Tuleta eta Arraia

A genda

URRIAK 17 ostirala

- **Herri Batasunak** deitua, manifestazioa egingo da arratsaldeko 20.00etan.

URRIAK 19 igandea

- Domund, edo mundu guztiko **Mixio egunarekin** bat eginez, haurren Meza ospatuko da San Salvatore elizan goizeko 10.30etan.

URRIAK 20 astelehena

- **Euskal Herria askatu!**-ren konzentrazioa arratsaldeko 20.00etan errotondan.

URRIAK 26 igandea

- **Andatza K.Ek irteera** antolatu du **Bakaiku- Lizarragako Tunelera**. Irteera goizeko 8.00etan, frontoi atzean.

URRIAK 27 astelehena

- **Euskal Herria askatu!**-ren konzentrazioa arratsaldeko 20.00etan errotondan.

URRIAK 29 asteazkena

- **Uriberri- berriko teila-labeari buruzko filminen** emanaldia. Aitzaga Elkarteko sotoan, arratsaldeko 20.00etan.

URRIAK 30 osteguna

- **Zeraingo herriaren esperientziaren aurkezpen hitzaldia**. Hizlaria, Jakoba Errekondo. Aitzaga Elkarteko soroan, arratsaldeko 20.00etan.

OHARRAK

- ✓ **EHNE sindikatuak** langabe-tuei zuzendutako



Dantza Taldean izena emateko epea irekita dago **16 urte-tik gorakoentzat**. **Urriak 20 eta 21** (astelehena eta asteratea), arratsaldeko **16.30**etatik **18.30**etara. Udarregi Zaharrean.

"**Nekazaritza eremuetako garapenari buruzko ikastaroa**" antolatu du **urriaren 23tik azaroak 14ra** bitarte. **Ikasle kopurua mugatua** da, eta **dohainekoa**. **Tolosan** emango da. Informazio gehiago 65 35 90 edo 65 35 67 telefonoetan. Xabier.

- ✓ **Mihixe Pintura Eskolako** ikasurtea urrian hasi da; astear-te, ostegun eta larunbatetan. Informazio gehiago Udarregi Zaharrean edo 36 66 39 telefonoan.

- ✓ **Bota Punttuba** bertso eskola-ren ikasurtea hasi bada ere, inork izena eman nahi badu oraindik garaiz dabil. Udarregi Zaharreko egoitzan.

- ✓ **Helduentzako Heziketan** parte hartu nahi baldin baduzu, matrikulatzeko orduak hauek dira: **astelehen** eta **asteazkenetan** goizeko **10.00**etatik **12.00**etara eta **astearte** eta **ostegunetan** arratsaldeko **17.00**etatik **19.00**etara **Ageri-alde** ikastetxean.

- ✓ **Urriaren tailerra** irekiko da Etxe Aldian. Bertan, zur tailaketa, marrazkia eta pintura, erres-

taurazioa eta esku lanak landuko dira. Deitu **36 47 83**. Pelex edo Susana.

- ✓ **Pisua alokatzeko** Kaleberrin. Interesatuok deitu, 37 14 95.
- ✓ **Garajea salgai** daukat Kaleberrin. Interesatuok, deitu 36 41 80 telefonora.
- ✓ **Pisu bat alokatzeko** Bilboko alde zaharrean. Unibertsitateko autobusetik gertu dago. 37 31 17 Uxo.
- ✓ **Pisua salgai** da Santuenean. Deitu 36 04 46.
- ✓ **Flauta trabesera** bat erosiko nuke. 36 13 12 telefonora deitu iluntzetan.

LANPOSTUAK

- ⇒ **Usurbil eta Orio bitarteko N-634 karreterako sarea garbitu eta konpontzeko langileak** behar dira. Informazio gehiago 48 23 66 telefonoan edo GAOko 189. zenbakian.
- ⇒ **Emakume batek jatetxeren batean platerak garbituko lituzke**. Aste egunean goizez eta igandetan egun osoz. Telf. 36 57 81.



Usurbil Autoak, S. C. L.
Zerbitzu Ofiziala

Zumartegi industrialdea
Aitzearra kalea, 1
Tel.: 36 10 79 Usurbil

Murgintza - Gasak Berokuntza
J. Orbegozo

Bizkarra 1, 1.esk.

☎ 36 59 26 - 37 29 37

Kirol agenda

URRIAK 18 larunbata

- Bigarren nazionaleko **esku-baloi partidua** (M): **Usurbil-Escolapios**.
- **Eskubaloi partidua** kadete mailan (M): **Askartza Klaret-Usurbil**.
- **Eskubaloi partidua** jubenil mailan (M): **Askartza Klaret-Usurbil**.
- **Areto Futboleko partidua** (M): **Umore Ona- Xabier Edaritegia**.

URRIAK 19 igandea

- **Endika Abril Errebote txapelketa: Baiona I- Kanbo**. Goizeko 9.30etan.
- **Gipuzkoako errebote txapelketa: Zubieta I- Billabona II**.
- **Futbol partidua** erregional

mailan (M): **Roteta C.D.b.-Usurbil F.T.**

- **Futbol partidua** kadete mailan (M): **Hernani C.D.-Usurbil F.T.**
- **Futbol partidua** (N): **Zarautz-Usurbil F.T.**
- **Futbol partidua** jubenil mailan (M): **Usurbil F.T.- Gazteak**.
- **Saskibaloi partidua** senior mailan (M): **S.L.T. Uztapide-Usurbil S.T.**

URRIAK 25 larunbata

- Bigarren nazionaleko **esku-baloi partidua** (M): **El Pilar-Usurbil**.
- **Eskubaloi partidua** kadete mailan (M): **Usurbil-Corazonistas de Vitoria**.
- **Eskubaloi partidua** jubenil mailan (M): **Usurbil-**

Corazonistas de Vitoria.

- **Areto Futboleko partidua** (M): **Xabier Edaritegia-Pasteleria Adarra**.

URRIAK 26 igandea

- **Endika Abril Errebote txapelketa finalerdia**. Billabonan.
- **Futbol partidua** erregional mailan (M): **Kostkas C.D.-Usurbil F.T.**
- **Futbol partidua** kadete mailan (M): **Usurbil F.T.- Lasarte Oria C.D.**
- **Futbol partidua** (N): **Usurbil F.T.- Bergara K.E.**
- **Futbol partidua** jubenil mailan (M): **Amaiak Bat K.E.-Usurbil F.T.**

PELOTA

Urriak 12

Usurbilgo Pelota Txapelketa. Finalak

Etzaniz/Elola- Laskurain/Bengoetxea, 22-5 (jubenilak, mutilak)

Garate/Txikito IX- Bizente/Gastesi, 22-12 (afizionatuak, mutilak)

Endika Abril Errebote Txapelketa

Urriak 5

Zubieta I- Baigorri, 9-13

Zubieta II- Baiona I, 2-13

FUTBOLA

Urriak 4-5

Usurbil-Texas Lasarte, 2-0 (err. m)

Usurbil- Urnieta, 4-1 (kadeteak, mutilak)

Usurbil- Orio'ko, 0-1 (jubenilak, mutilak)

Usurbil- Ostadar, 0-2 (neskak)

Urriak 11-12

Usurbil- Urretxu Zumarraga, 0-4 (neskak)

Zarautz- Usurbil, 4-1 (jubenilak, mutilak)

ESKUBALOIA

Urriak 4-5

Usurbil- Potugalete, 19-20 (bigarren nazionala, mutilak)

Usurbil- Bidasoa, 13-21 (kadeteak, mutilak)

Usurbil- Bidasoa, 12-20 (jubenilak,

mutilak)

Urriak 11-12

Aloñamendi- Usurbil. 22-32 (bigarren nazionala, mutilak)

Urdaneta- Usurbil. 15-11 (kadeteak, mutilak)

Urdaneta- Usurbil. 30-16 (jubenilak, mutilak)

SASKIBALOIA

Urriak 11-12

Usurbil-Beti Gazte, 36- 52 (seniorrak, mutilak)

ARETO FUTBOLA

Urriak 4-5

Xabier edaritegia- Carpinteria metalica Gurutxaga, 2-0 (mutilak)

E maitzak



BAZKIDE TXARTEA

5.000 PEZETA URTE OSORAKO


Izena: _____
 1.Abizena: _____
 2.Abizena: _____
 Helbidea: _____
 Herria: _____
 Tfnoa: _____
 Kontu Korrontea (20 digito): _____

HAMABOSTEKARIA
noaua

Izen-abizenak euskalduntzeko kanpaina

"apelliduetak abizendutak"

Izenedoabizena ofizialki euskaraz idatzita izan nahi baduzu, guk lagunduko dizugu eta tramite guztiak dohainiki egingo dizkizugu.



AZCONBIET A



ETXEBERRIA



ATXEGA



HARITZ
JAUREGI
AGIRRE

Ekarri beharrekoak:

- * Nortasun agiriaren kopia
- * Jaiotze agiria (Erregistro zibilean eskatu)
- * Izen-abizenak euskaraz dituzun hiru agiri (matrikulak, karnetak, eskabideak...)

Informazio gehiago nahi baduzu, zatorz gugana edo 37 19 51 telefonora deitu (Lurdes, Udaletxea).



Kale Nagusia, 37 - Tel. 36 03 21



USURBILGO UDALA
EUSKARAREN AHOLKU BATZARRA



USURBILGO
EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ

84 postakutxa - Usurbil